# LEGEGINTZALDI PLANA
# 2015-2019
# PLAN DE LEGISLATURA

***Herria gozatu***

*Disfruta Errenteria*

Errenteria ADN kreaktiboa

adn.errenteria.eus

# 1.- ERRENTERIA, ERALDAKETAREN BIDEAN

Errenteria aldaketaren eta eraldaketaren unean dago, 2013ko azaroan Errenteria 2025 Plan Estrategikoa onartu izanaren ondorioz sortutako unean, alegia. Dokumentu hau herritarrek parte hartzeko prozesu baten ondoren idatzi da. Prozesu horretan politikaren, gizartearen, ekonomiaren, kirolaren eta kulturaren alorreko 268 pertsonak eta ordezkarik hartu dute parte, eta prozesuaren helburua udalerriak etorkizunean izan behar duenari buruzko ikuspegi partekatua lortzea da, baita hura gauzatzeko proiektuak definitzea ere. Plan hau aldaketa bat prestatzeko sortu da, Plan hau, gainera, egun gauden lekutik bihar egon nahi dugun lekuraino joateko behar den bidea ezartzen ari da.

Plan hau zehaztutako helburu batzuk lortzera bideratutako udal-ekintzari laguntzeko tresnatzat hartzen da. Jakina denez, ikuspegi estrategikoaz hornitzen diren erakundeak dira seguruenik erabaki zuzenak eta modurik eraginkorrenean hartzen dituztenak; Errenteria haien artean dago aurrekaririk ez duen epe luzera egindako gogoeta estrategikoaren bitartez.

Plan Estrategikoak orientazio handien esparrua biltzen du, hots, udalerriaren jardunek datozen 10 urteetan bideratu beharko dituzten lerro nagusien esparrua, norabiderik gabeko eta eraginkortasun txikiko garapena saihestearren. Gainera, orientazio horiek oinarri hartuta definitu behar dira udalaren gainerako plangintza-tresnak.

Udalaren bokazioa berritzea komenigarria den testuinguru batean

Plan Estrategikoaren ekimena biltzen duen testuinguruaren ezaugarria egoera ekonomikoaren degradazioa da, eta egoera hori benetako pobrezia- eta prekarietate-egoerei buruzko datuetan islatzen da. Horrek eskatzen du udalerrian bizi den inor bazterrean ez uztea eta gizartea kohesionatuko duen gizarte-sarea indartuko duten esku-hartzeei lehentasuna ematea.

Krisiari eta krisiak pertsonengan dituen ondorioei aurre egiteaz gain, Errenteriak honako alderdi hauei egin behar die aurre:

# 1.- ERRENTERIA, CAMINO DE LA TRANSFORMACIÓN.

Errenteria se encuentra en un momento de cambio, de transformación, que deriva de la aprobación del Plan Estratégico Errenteria 2025 en noviembre del 2013. Este documento, que fue redactado tras un proceso de participación ciudadana de 268 personas y representantes del ámbito político, social, económico, deportivo y cultural, buscaba lograr una visión compartida sobre lo que el municipio ha de ser en el futuro y definir los proyectos para su materialización. Es un Plan concebido para instrumentar un cambio, un Plan que está marcando el rumbo necesario para ir desde la posición actual hasta el lugar en el que deseamos estar mañana.

El Plan se concibe como un instrumento de ayuda a la acción municipal orientada hacia unos objetivos definidos. Es sabido que son las organizaciones que se dotan de una visión estratégica las que con mayor probabilidad adoptan las decisiones correctas y lo hacen de la manera más eficaz; Errenteria forma ya parte de ellas a través de esa reflexión estratégica a largo plazo que no cuenta con precedente.

El Plan Estratégico representa el marco de las grandes orientaciones, las líneas maestras que deberán guiar las actuaciones del municipio en los próximos 10 años para evitar un desarrollo errático y de baja efectividad. Además, es desde la base de estas orientaciones como se deben definir el resto de los instrumentos de planificación municipal.

**En un contexto que hace conveniente renovar la vocación del municipio**

El contexto en el que se enmarca la iniciativa del Plan Estratégico ha estado caracterizado por una degradación de la situación económica, reflejada en los datos de las situaciones de pobreza y precariedad real. Ello exige adoptar el compromiso de no abandonar a su suerte a ninguna persona residente en el municipio y priorizar las intervenciones que refuercen un tejido social que cohesione la sociedad.

alde batetik, zentraltasuna berreskuratzeari, eta, bestetik, kanpoan Gipuzkoako hirugarren hiri gisa ikus dezaten lortzeari. Hainbat proiektu (Lekuona, Atlantikaldia, Torrekua sormenerako gunea, eta abar) garatu izanak erantzuten dio Errenteria kanpoko proiekzioarekin kokatzeko premia horri.

Jarduera ekonomikoaren eta enpleguaren ikuspegitik, jarduera ekonomikoak garatzeko lurzorurik ez izatea alderdi murriztaile argia da industria-garapenerako. Zerbitzuen tokiko eskaintza ere murritza da biztanleriari dagokionez, batez ere, Errenteria eskualdeko herri nagusia izanik dagokion zeregina kontuan hartzen badugu. Testuinguru horretan, Plan Estrategikoak proiekzio berri bat eta jarduteko ildo berriak ezartzen ditu, sormenezko ekonomiaren eta zerbitzuetan oinarritutako ekonomiaren alde eginez, industria-garapena ez izatearen eta industria-garapena izateko ezintasunaren alternatiba gisa.

Errenteria berezko izaera eta nortasuna duen herria da, geografikoki oso ondo kokatuta dagoena Donostia-Baiona korridorean, eta ezin hobeto konektatuta dagoena, kultura-arloko nahiz natura-arloko baliabide garrantzitsuak dituena eta sorkuntzaren alorrean dinamismo, indar eta bizitasun nabariak dituena, kulturari garrantzi handia ematen diona tokiko etorkizuneko garapena eta bertako biztanleenongizatea lortzeko.

Además de afrontar la crisis y sus efectos en las personas, Errenteria debe afrontar la recuperación de la centralidad y la proyección exterior como tercera ciudad de Gipuzkoa. El desarrollo de algunos proyectos como Lekuona, Atlantikaldia, el espacio creativo Torrekua, etc. responden a esa necesidad de situar a Errenteria con proyección exterior.

Desde el punto de vista de la actividad económica y el empleo, la escasez de suelo para actividades económicas es un claro factor restrictivo para el desarrollo industrial. La oferta local de servicios es también reducida en relación a la población, sobre todo, considerando el papel de cabecera comarcal que corresponde a Errenteria. En este contexto, el Plan Estratégico establece una nueva proyección y líneas de actuación, apostando por la economía creativa y de servicios como alternativa a la ausencia e imposibilidad de desarrollo industrial.

Errenteria es una ciudad con carácter y personalidad propia, geográficamente muy bien situada en el corredor Donostia-Baiona y perfectamente conectada, con importantes recursos culturales y naturales y notable dinamismo, energía y vitalidad creativa, que otorga una gran importancia a la cultura para el desarrollo futuro local y el bienestar de sus habitantes.

## 2.- 2015 - 2019 LEGEGINTZALDIKO PLANA

Dokumentu honetan datozen lau urteetarako aurkeztu den Legegintzaldiko Planak Plan Estrategikoan kontuan hartzen den ikuspegi estrategiko horri erantzuten dio, eta Plan horretako jardun-ildo gehienak garatzen ditu. Esan dezakegu Legegintzaldiko Plan hau egikaritzearekin batera Errenteria 2025 Plan Estrategikoan azaltzen diren proiektu gehienak garatuko ditugula.

### Legegintzaldiko Planarekin honako 5 erronka hauei egin nahi zaie aurre:

#### *1.- Errenteriaren eraldaketa bultzatzea bere garapen sozioekonomikoa lortzeko:*

Arestian adierazi dugunez, Errenteria inflexio-puntuan dago. Gure herriak galdu egin du 70eko eta 80ko hamarkadetako urteetan zeukan industria-jarduera handia, eta ez dauka lurzorurik industria-garapena sustatzeko. Gure jardueraren % 70 zerbitzuetan oinarritutako jarduera da. Horregatik, Plan Estrategikoan erabaki da ekonomia sortzailea eta zerbitzuetan oinarrituta dagoen ekonomia, hau da, kalitateko lanak sortzen dituen ekonomia garatzea eta sustatzea.

#### *2.- Pertsonak babestea, gizartearen eta garapen iraunkorraren elementu kohesionatzaile gisa:*

Gizarte baten garapen-maila ez da ekonomia-adierazle batzuen arabera soilik neurtzen, gizarte-adierazle batzuk oinarri hartuta ere neurtzen da. Gizarte batek pertsonak babesteko duen gaitasunak gizarte horren kohesio-maila zein den erakusten du, eta ahalbidetzen du garapen sozioekonomiko handiagoa izatea eta ongizatearen eta segurtasunaren pertzepzioa handiagoa izatea. Beraz, ez dago garapen sozioekonomikorik gizarte-babesik eta gizarte-kohesiorik gabe, eta, era berean, ez dago gizarte-babesik garapen sozioekonomikorik ez badago.

Era berean, Errenteriak pertsona guztien arteko berdintasuna bultzatuko duen herria izan behar du, pertsona horien jatorria, arraza, sinesmena edo sexua edozein izanda ere. Aniztasuna gizartea erakartzeko eta gizartea

## 2.- PLAN DE LEGISLATURA 2015 - 2019

El Plan de Legislatura que se presenta en el presente documento para los próximos cuatro años, responde a esa visión estratégica contemplada en el Plan Estratégico, y desarrolla gran parte de sus líneas de actuación. Podemos afirmar que, con la ejecución de este Plan de Legislatura, habremos desarrollado la gran mayoría de los proyectos contemplados en el Plan Estratégico Errenteria 2025.

### Los retos que se buscan con el Plan de Legislatura son 5:

#### *1.- Impulsar la transformación de Errenteria para su desarrollo socioeconómico:*

Tal y como se ha señalado Errenteria se encuentra en un punto de inflexión. Nuestra ciudad ha perdido la gran actividad industrial que tenía en los años 70 y 80, y carece de suelos para potenciar un desarrollo industrial. El 70 % de nuestra actividad económica es una actividad de servicios. Es por ello, por lo que el Plan Estratégico opta por desarrollar y potenciar la economía creativa y de servicios, una economía que a su vez genera trabajos de calidad.

#### *2.- La protección de las personas, como un elemento cohesionador de la sociedad y del desarrollo sostenible:*

El nivel de desarrollo de una sociedad no sólo se mide en función de unos indicadores económicos, sino también se hace en base a unos indicadores sociales. La capacidad de una sociedad para garantizar la protección de las personas demuestra el nivel de cohesión de esa sociedad, y permite un mayor desarrollo socioeconómico y el aumento de la percepción de bienestar y de seguridad. Por tanto, no hay desarrollo socieconómico sin protección y cohesión social, ni tampoco existe protección social si no hay desarrollo socieconómico.

A su vez, Errenteria ha de ser un pueblo que fomente la igualdad entre todas las personas, con independencia de su origen, raza, creencia o sexo. Errenteria es un municipio que ha sabido hacer de la diversidad un elemento de atracción y de cohesión de la sociedad, y así deberá de ser también en el futuro.

kohesionatzeko elementu bihurtzen jakin duen udalerria da Errenteria, eta horrelaxe izan beharko du etorkizunean ere. Elkarbizitza giza hazkundearen faktore gisa sustatuko duen herria eta elkarbizitzako eta elkarrekin harremanetan egoteko guneak sortuko dituen herria nahi dugu.

### *3.- Pertsonentzako ingurune bat:*

Hiri baten espazioak pertsonen bizi-kalitate hoberena bilatzera bideratuta dagoen gunea izan behar du. Hiri-eremu batean esku hartzera bideratuta dauden udal-politikek babesa eta elkarbizitza, genero-berdintasuna, garapen iraunkorra, bizitza osasungarria izateko guneak sortzea, mugikortasun-arazoak dituzten pertsonentzako irisgarritasuna eta erakargarriak nahiz interes berezikoak izan daitezkeen eremuak sustatzea bilatu beharko dute.

### *4.- Sormenean heztea eraldaketarako balio gisa:*

Pertsonen gaitasunak eta pertsonen sormena garatuko dituzten balioetan hezi eta prestatu behar ditugu pertsonak, gizarte-eraldaketarako tresna gisa. Beren bizitzako alderdi guztietan ahaldunduta dauden eta beren etorkizuna berenganatzeko gai diren pertsona aktiboak eta dinamikoak hezi nahi ditugu. Pertsonak hezi eta gaitu behar ditugu pertsona horiek gizarte-eraldaketako guneak sortzeko, hezkuntza formalean nahiz ez-formalean.

### *5.- Administrazio berria erronka berriak lortzeko:*

Administrazio eraginkor batek soilik lortuko du sektore publikoaren pribatizazio-joerei aurre egitea. Hori badakigunez, gure erronka garrantzitsuenetako bat herritarren premiei hurbiltasunez, eraginkortasunez eta gardentasunez erantzuteko gai den administrazio eraginkor bat sortzea da; horretarako, administrazioa pertsonen premietara egokituko da, eta ez alderantziz.

Legegintzaldiko Plan honetan azaltzen diren bost erronka horiek oinarri hartuta, 28 proiektu nagusi ezarri ditugu.

Queremos una ciudad donde se fomente la convivencia como factor de crecimiento humano, que genere espacios de convivencia y de interrelación.

### *3.- Un entorno para las personas:*

El espacio de una ciudad ha de ser un espacio destinado a buscar la mejor calidad de vida de las personas. Las políticas municipales que vayan dirigidas a intervenir sobre un espacio urbano han de buscar la protección y la convivencia, la igualdad de género, el desarrollo sostenible, la generación de espacios para una vida saludable, la accesibilidad para las personas con problemas de movilidad y la potenciación de aquellos espacios que puedan resultar atractivos y de especial interés.

### *4.- Educar en la creatividad, como valor de transformación:*

Debemos educar y formar a las personas en valores que desarrollen sus propias capacidades, que desarrollen su creatividad, como herramienta de transformación social. Queremos educar personas activas y dinámicas empoderadas en todos los aspectos de su vida, y que sean capaces de conquistar su propio futuro. Necesitamos formar y capacitar a personas para que generen espacios de transformación social, tanto en la educación formal como en la no formal.

### *5.- Nueva administración para nuevos retos:*

Sólo una administración eficaz es capaz de combatir la tendencia de privatización del sector público. Conscientes de ello uno de los retos más importantes que tenemos es el de crear una administración eficaz, que sea capaz de responder a las necesidades de la ciudadanía con cercanía, efectividad y transparencia, adaptando la administración a las necesidades de las personas, y no al revés.

Sobre estos cinco retos que se contemplan en el presente Plan de Legislatura hemos establecido un total de 28 principales proyectos.

| *LEGEGINTZALDIKO ERRONKAK* | *PROIEKTU NAGUSIAK* |
|---|---|
| *Eraldaketa sustatzea* | Torrekua: HABIAN! kreaktiboa |
| | Angel de la Guarda: Teknologia industriala |
| | Lekuona: Arte Eszenikoen Fabrika |
| | Hirigune Historikoa berritzea |
| *Pertsonak babestea* | Gizarte Larrialdiko Laguntzak bermatzea |
| | Gizarte Zerbitzuen Aholkularitza Kontseilua sortzea |
| | Gizarte-eraldaketarako proiektu pilotua |
| | Kultura-aniztasuna eta jatorri-aniztasuna |
| | Udalaren hizkuntza-politika |
| | Etxegabetzeen eta energia-pobreziaren bulegoa |
| *Pertsonentzako ingurunea* | Oiartzun ibaiaren egoera hobetzea |
| | Igogailua Alaberga Behealdean eta Goialdean eta beste batzuk |
| | Gaikako bilketaren % 60 |
| | Energia Iraunkorraren Ekintza Plana |
| | Aparkalekuak Olibeten eta Igantzin |
| | Barandiaran parkea eta Arramendi parkea |
| | Beraungo futbol-zelaia eta atletismo-pista berritzea |
| | Kiroldegia handitzea |
| | Aterpetxea eraikitzea |
| *Sormenean heztea* | Emakumeen Etxea |
| | Eskola Kontseilua eta Hezkuntza Plana |
| | Gazteria Plana |
| | Liburutegi berria |
| | Kultur Etxea Beraunen |

| *RETOS DE LEGISLATURA* | *PRINCIPALES PROYECTOS* |
|---|---|
| *Impulsar la transformación* | Torrekua: HABIAN! kreaktiboa |
| | Angel de la Guarda: Teknología industrial |
| | Lekuona: Fábrica de Artes Escécnicas |
| | Rehabilitación Casco Histórico |
| *Protección de las personas* | Garantizar Ayudas de Emergencia Social |
| | Creación Consejo Asesor Servicios Sociales |
| | Proyecto piloto de transformación social |
| | Diversidad Cultural y diversidad de origen |
| | Política Lingüística Municipal |
| | Oficina de desahucios y pobreza energética |
| *Entorno para las personas* | Mejora del Río Oiartzun |
| | Ascensor Alaberga Bajo y Alto y otros |
| | 60 % recogida selectiva |
| | Plan de Acción de la Energía Sostenible |
| | Aparcamientos en Olibet y Iantzi |
| | Parque Barandiaran y Parque Arramendi |
| | Reforma campo futbol y atletismo Beraun |
| | Ampliación Polideportivo |
| | Construcción albergue |
| *Educar en la creatividad* | Casa de la Mujer |
| | Consejo Escolar y Plan de Educación |
| | Plan de Juventud |
| | Nueva biblioteca |
| | Casa de Cultura en Beraun |

| LEGEGINTZALDIKO ERRONKAK | PROIEKTU NAGUSIAK |
|---|---|
| *Administrazio berria* | Herritarra Artatzeko Zerbitzua abian jartzea |
| | Herritarren Segurtasunean Parte Hartzeko Kontseilua |
| | Auzoko Udaltzaingoa |
| | Gardentasun-ataria |

| RETOS DE LEGISLATURA | PRINCIPALES PROYECTOS |
|---|---|
| *Nueva administración* | Puesta en marcha SAC |
| | Consejo de Participación Seguridad Ciudadana |
| | Guardia Municipal de Barrio |
| | Portal de Transparencia |

# 3.- LEGEGINTZALDIKO PLANAREN PROIEKTU NAGUSIAK

### 3.1.- Torrekua: Habian! Fabrika Kreaktiboa / Teknologia Kreaktiboa.-

2016ko apirilean, Torrekua elkarlanerako eta lankidetzarako gunearen egoitza izango da eta teknologia berriei nahiz sormenezko lanbideei lotutako proiektuak hartuko ditu bere baitan. Baliabiderik ez duten ekintzaileek beren proiektuak abian jartzeko eta garatzeko guneak, makineria eta laguntza ematea da helburua, aldi baterako egonaldi mugatua eskainiz. Zentroan 30 pertsona hartuko dira guztira.

### 3.2.- Angel de la Guarda Zentroa, Industria Teknologia Aurreratua.-

Abenduan jarriko da abian industria-teknologia aurreratuan espezializatuta dagoen haztegia, Angel de la Guarda Zentroan kokatuta dagoena. Haztegi horretarako, Errenteriako Udalak, Oarsoaldea SAk, Tknikak eta Don Boscok hitzarmen bat sinatu zuten iaz. Proiektu horren helburua unibertsitateko eta lanbide-heziketako ikasleek lan-arloko eta enpresa-arloko ideiak gara ditzaten laguntzea da.

### 3.3.- Lekuona, Arte Eszenikoak sortzeko fabrika.-

Gipuzkoako Foru Aldundiarekin batera, Arte Eszenikoen Zentro bat eraikitzen ari dira Lekuona fabrikan. Zentro hori dantza eta antzerkia sortzeko fabrika bat izango da, sektore horretako amateurrentzako eta konpainientzako erreferentziazkoa Euskal Herrian. Lekuona Errenteriaren eraldaketaren ikonoa izango da, industria astunaren herria izatetik sormenezko ekonomiaren herri bihurtuko da.

# 3.- PRINCIPALES PROYECTOS DEL PLAN DE LEGISLATURA

### 3.1.- Torrekua: Habian! Fabrika Kreaktiboa / Teknologia Kreaktiboa.-

En abril de 2016 Torrekua será la sede de un espacio colaborativo y cooperativo que albergará proyectos ligados a las nuevas tecnologías y a los oficios creativos. El objetivo es facilitar a los y las emprendedoras que carecen de recursos los espacios, la maquinaría y la asistencia para el arranque y el desarrollo de sus proyectos, con una estancia temporal limitada. El centro acogerá a un total de 30 personas.

### 3.2.- Centro Angel de la Guarda, Tecnología Industrial Avanzada.-

En diciembre se pone en marcha el vivero especializado en tecnología industrial avanzada, ubicado en el Centro Angel de la Guarda y para el que se firmó el pasado año un convenio entre el Ayuntamiento de Errenteria, Oarsoaldea, S.A., Tknika y Don Bosco. El objetivo de este proyecto es facilitar a los estudiantes universitarios y de formación profesional el desarrollo de ideas laborales y empresariales.

### 3.3.- Lekuona, Fábrica de Creación de las Artes Escénicas.-

Conjuntamente con la Diputación Foral de Gipuzkoa se está llevando a cabo en la fábrica de Lekuona la construcción de un Centro de Artes Escénicas que será una fábrica de creación de la danza y el teatro, referencia en Euskal Herria para amateurs y compañías de este sector. Lekuona se convierte así en el icono de la transformación de Errenteria, de una ciudad de la industria pesada a una ciudad de la economía creativa.

## 3.4.- Gune Historikoa berritzea erakartzeko elementu gisa.-

Errenteriaren Gune Historikoa berritzeko asmo handiko plan bat garatuko dugu errenteriarren partaidetzarekin, eta gune historikoa gure udalerrira jendea erakartzeko elementu bihurtuko dugu. Plan hau egikaritzeak ekarriko du eraikuntzaren eremuan espezializatutako lana sortzea.

## 3.5.- Gizarte Larrialdiko Laguntzak bermatzeko konpromisoa.-

Gizarte-larrialdiko laguntzak bermatzeko konpromisoa hartzen dugu, baita laguntza horiek Eusko Jaurlaritzak bere osotasunean estaltzen ez baditu ere –gertatu izan da hori–, Eusko Jaurlaritza baita laguntza horien eskumena duena.

## 3.6.- Gizarte Zerbitzuen Aholkularitza Kontseilua sortzea.-

Ezinbestekoa da gizarte-zerbitzuen eremuan herritarrek parte hartzeko Aholkularitza Kontseilua sortzea pertsonak babestearen alorrean administrazioak duen etorkizuneko erronka handiari erantzuteko. Gero eta gizarte-premia gehiago dago eta gero eta ahalegin handiagoak egin behar dira premia horiei erantzuteko. Premia horiei guztiei ezin zaie erantzun hirugarren sektoreko elkarteen partaidetzarik gabe.

## 3.7.- Gizartea eraldatzeko proiektu pilotua.-

Proiektu hori garatzen ari gara dagoeneko Iztieta auzoan. Proiektu honen helburua pertsonen babesa bere izaera integralenean eta zeharkakoenean ulertzea da. Espazio publikoa, auzoaren irudia, merkataritzaren suspertzea eta elkarbizitza hobetzeko erronkari nahiz pertsonen premiei erantzuteko ekintza-plana da. Horretarako, bulego bat ireki da Iztieta auzoan.

## 3.4.- Rehabilitación del Casco Histórico como elemento de atracción.-

Desarrollaremos un plan ambicioso de rehabilitación del Casco Histórico de Errenteria con la participación de sus vecinos y vecinas, para situarlo como un elemento de atracción de nuestro municipio. La ejecución de este Plan supondrá la generación de trabajo especializado en el ámbito de la construcción.

## 3.5.- Compromiso de garantizar las Ayudas de Emergencia Social.-

Asumimos el compromiso de garantizar las ayudas de emergencia social incluso en el supuesto que no sean cubiertas – como ha ocurrido - en su totalidad por el Gobierno Vasco, que es quién tiene la competencia.

## 3.6.- Creación del Consejo Asesor de Servicios Sociales.-

Es necesario crear un Consejo Asesor de participación ciudadana en el ámbito de los servicios sociales para dar respuesta al enorme reto futuro de la adminstración en la protección de las personas. Cada vez son más las necesidades sociales, y han de ser mayores los esfuerzos para responder a ellas. La respuesta a todas esas necesidades no se puede entender sin la participación de las asociaciones del tercer sector.

## 3.7.- Proyecto piloto de transformación social.-

Se trata de un proyecto que ya se está desarrollando en el barrio de Iztieta. El objetivo de este proyecto es entender la protección de las personas en su carácter más integral y transversal. Es un plan de accíon para dar respuesta al desafio de mejorar el espacio público, la imagen del barrio, la revitalización del comercio, la convivencia y las necesidades de las personas. A tal fin, se ha abierto una oficina en el barrio de Iztieta.

### 3.8.- Kultura-aniztasuna eta jatorri-aniztasuna.-

Harrera-protokoloa ezartzeko lan egiten ari gara eta elkarbizitzaren, integrazioaren eta elkarrekiko errespetuaren aldeko hezkuntza sustatuko dugu, elkarrekin egotea eta elkar ezagutzea ahalbidetuko diguten guneak sortuz.

### 3.9.- Udalaren hizkuntza-politika.-

Euskararen ikaskuntza Errenteriako herritar guztien artean sustatzeko eta hedatzeko, matrikulazio-tasak pixkanaka-pixkanaka jaisten joango gara datozen lau urteetan.

### 3.10.- Etxegabetzeen eta pobrezia energetikoaren bulegoa.-

Aholkularitza eta laguntza emateko doako zerbitzu bat jarriko dugu pobrezia energetikoko egoeran edo etxegabetze-arriskuko egoeran dauden pertsonentzat.

### 3.11.- Oiartzun ibaiaren egoera hobetzea: Jardunak Ondartxon eta Fanderiako Interpretazio Zentroan.-

Duela gutxi onartutako Oiartzun ibaiaren inguruneko Paisaia Plana betetzeko, jardun garrantzitsuak egingo dira ibaiaren azken tartean –Ondartxo–; horrez gain, interpretazio-zentro bat eraikiko da Fanderiako Errotan.

### 3.12.- Alabergako Behealdea eta Goialdea lotuko dituen igogailua eraikitzea.-

2016. urtean ekingo diegu Alabergako Behealdea eta Goialdea lotuko dituen igogailua eraikitzeko obrei, eta 2017. urtean amaituko dira. Halaber, beste igogailu batzuk (esate baterako, Pontika eta Igantzi lotuko dituen igogailua, igogailu bat Galtzarabordan, edo Beraunen) eraikitzeko aukerarik ote dagoen aztertuko dugu.

### 3.13.- Gaikako bilketaren % 60 lortzea.-

Hondakinei buruzko ordenantza berri bat egingo da. Ordenantza horretan Europar Batasunaren zuzentarauak betetzeko beharrezkoak diren neurriak bilduko dira.

### 3.8.- Diversidad cultural y diversidad de origen.-

Estamos trabajando para implementar el protocolo de acogida y fomentaremos la educación a favor de la convivencia, la integración y el respeto mutuo, generando espacios que nos permitan encontrarnos y conocernos.

### 3.9.- Política lingüística municipal.-

Para fomentar y ampliar el aprendizaje del euskara entre toda la ciudadanía de Errenteria en los próximos cuatro años vamos a ir abaratando progresivamente las tasas de matriculación.

### 3.10.- Oficina de desahucios y pobreza energética.-

Pondremos un servicio gratuito de asesoría y ayuda para aquellas personas que se encuentren en una situación de pobreza energética o de riesgo de desahucio.

### 3.11.- Mejora del Rio Oiartzun: Actuaciones en Ondartxo y Centro de Interpretación de Fanderia.-

En cumplimiento del recientemente aprobado Plan del Paisaje del Río Oiartzun se procedera a la realización de importantes actuaciones en su tramo final – Ondartxo -, así como a la contrucción de un centro de interpretación en el Molino de Fandería.

### 3.12.- Construcción del ascensor que une Alaberga Bajo y Alto.-

Iniciaremos en el año 2016 las obras de contrucción del ascensor que une Alaberga Bajo y Alto que finalizará en el año 2017. Así mismo, estudiaremos la posibilidad de la construcción de otros ascensores, como el ascensor que une Pontika y Iantzi, un ascensor en Galtzaraborda, o en Beraun.

### 3.13.- Conseguir un 60 % de recogida selectiva.-

Se elaborará una nueva ordenanza de residuos, que recogerá las medidas que sean necesarias para cumplir con las directrices de la Unión Europea.

### 3.14.- Energia Iraunkorraren Ekintza Plana betetzea.-

2012. urtean Alkateen Europako Itunari atxiki gintzaizkion, eta harrezkero neurriak ezartzen ari gara berotegi-efektuko gasen emisioa 2020. urterako % 20 murrizteko; horretarako, energia-eraginkortasunaren neurriak % 20 igotzen ari gara, eta beste % 20 energia berriztagarrien erabilera.

### 3.15.- Aparkalekuak eraikitzea Olibeten eta Igantzin.-

Doako aparkaleku libre berriak eraikiko ditugu; bata Olibet auzoan (150 ibilgailurentzako edukiera izango du) eta, bestea, Igantzi auzoan (36 ibilgailurentzako edukiera izango du).

### 3.16.- Barandiaran parkea eta Arramendi parkea eraikitzea.-

Barandiaran parkea eraikitzeko konpromisoa hartzen dugu, herritarrek parte hartzeko prozesu baten ondoren, prozesu horri esker definituko baita parke horren proiektua. Era berean, Arramendi parkea berriz definituko dugu, gunea eta gune horren erabilera hobetzeko asmoz.

### 3.17.- Beraungo futbol-zelaiaren eta atletismo-pistaren berritze integrala.-

Beraungo futbol-zelaiaren eta atletismo-pistaren berritze integralaren aurrekontua 1.900.000 € da. Berritze integrala egiteko, diru-laguntzak eskatuko dizkiegu Eusko Jaurlaritzari eta Gipuzkoako Foru Aldundiari, eta faseka ekingo diogu berritze horri.

### 3.18.- Udal-kiroldegia handitzeko proiektua.-

Errenteriak historikoki ez du kirol-kluben premiei erantzuten dien kirol-instalaziorik. Gure lehentasunen artean udal-kiroldegiaren zabaltze bat eraikitzea dago.

### 3.14.- Cumplimiento del Plan de Acción de Energia Sostenible.-

Tras adherirnos en el año 2012 al Pacto Europeo de Alcaldes y Alcaldesas estamos implementando medidas para reducir nuestras emisiones de gases de efecto invernadero en un 20% para el año 2020, incrementando un 20% las medidas de eficiencia energética y otro 20% el uso de las energías renovables.

### 3.15.- Construcción de aparcamientos en Olibet y Iantzi.-

Construiremos nuevos aparcamientos libres y gratuitos en el barrio de Olibet con capacidad para 150 vehículos, y en el barrio de Iantzi, con capacidad para 36 plazas.

### 3.16.- Construcción del Parque Barandiarán y Parque Arramendi.-

Nos comprometemos a la construcción del Parque Barandiaran tras un proceso de participación ciudadana que defina el proyecto del citado parque. Así mismo, procederemos a una redefinición del Parque Arramendi, a fin de mejorar el espacio y su uso.

### 3.17.- Reforma Integral del Campo de Futbol y Atletismo de Beraun.-

La reforma integral del Estadio del campo de futbol y atletismo de Beraun tiene un presupuesto de 1.900.000 €. Solicitaremos subvenciones al Gobierno Vasco y a la Diputación Foral de Gipuzkoa para la reforma integral, que la iniciaremos por medio de fases.

### 3.18.- Proyecto de ampliación del Polideportivo Municipal.-

Errenteria tiene una histórica carencia de instalaciones deportivas que den respuesta a las necesidades de los clubes deportivos. Se encuentra entre nuestras prioridades, la construcción de una ampliación del polideportivo municipal.

### 3.19.- Aterpetxe bat eraikitzea.-

Egungo Liburutegia Niessenera eraman ondoren, proposatzen dugu gaur egun Liburutegia dagoen instalazioetan udal-aterpetxe bat eraikitzea, gure udalerrian dagoen alojamenduen gabezia handiari irtenbidea bilatzeko.

### 3.20.- Emakumeen Etxea eraikitzea.-

Adin, jatorri eta klase sozial ezberdinetako emakumeen arnasgunea izango den etxea eraiki nahi dugu. Emakumeek emakumeentzat diseinatu eta egikarituko duten espazioa sortu nahi dugu, horretarako beharrezkoak izango diren parte-hartze prozesuak aktibatzeko konpromisoa hartuz.

### 3.21.- Eskola Kontseilua eta Hezkuntza Plana.-

Ikastetxe guztien ordezkaritza batuko duen kontseilua abiatu dugu, herriko hezkuntzaren errealitateaz hausnartu eta datozen urteei begirako erronkak zehazteko asmotan.

### 3.22.- Gazte Plan Estrategikoa.-

Plan honen helburu nagusia haur eta gazteen ahotsa udal politiketan txertatzea da; haien interesgune eta beharrak identifikatzeaz gain, Errenteriaren eraikuntzan parte-hartzaile aktibo izateko tresnak eskaintzea. Haur eta gazteekin bidea eraikitzea, haur eta gazteentzat izango den herria eraikitzeko.

Horretarako, elkarreraginean jardungo duten bi prozesu paralelo jorratuko ditugu:

> 1.- Haur eta gazteen bizitzetan eragiten duten arloen azterketa integrala: hezkuntza, kirola, euskara, genero ikuspegia, kulturaniztasuna, sozioekonomia, hirigintza ikuspegia... Alegia, herri diagnostikoa haur eta gazteen begiradatik aztertua.
>
> Diagnostikoaren bitartez ahulgune eta indargune esanguratsuak identifikatu ostean, aurrera begira jorratu beharreko lan-ildo nagusiak marraztuko ditugu.

### 3.19.- Construcción de un Albergue.-

Una vez trasladada la actual Biblioteca a Niessen, proponemos la construcción de un albergue municipal en las actuales instalaciones de la Biblioteca, a fin de buscar soluciones a la enorme carencia de alojamientos que existe en nuestro municipio.

### 3.20.- Contrucción de la Casa de la Mujer.-

Queremos construir una casa que sea un espacio de respiro para mujeres de diferente edad, procedencia y clase social. Queremos crear un espacio para mujeres diseñado y ejecutado por mujeres, tomando el compromiso de activar los procesos participativos necesarios.

### 3.21.- Consejo Escolar y Plan Educativo.-

Hemos puesto en marcha el consejo que reunirá la representación de todos los centros escolares, con el objetivo de hacer una reflexión sobre la realidad de la educación y definir los retos de los próximos años.

### 3.22.- Plan Estratégico Juvenil.-

El objetivo principal de este Plan es integrar la voz de los niños y los jóvenes en las políticas del ayuntamiento, y ofrecer herramientas para que, además de identificar sus intereses y necesidades, sean participantes activos en la construcción de Errenteria. Construir el camino con niños, a fin de construir una ciudad que será para ellos.

Para ello, elaboraremos dos procesos paralelos que interactuarán entre ellos:

> 1.-Un estudio integral sobre los ámbitos que afectan a las vidas de los niños y los jóvenes: educación, deporte, euskera, perspectiva de género, diversidad cultural, socioeconomía, perspectiva urbanística... Es decir, un diagnóstico sobre la ciudad evaluado desde la mirada de los niños y los jóvenes.
>
> Una vez identificadas a través del diagnóstico las fortalezas y debilidades significativas, dibujaremos las líneas de trabajo principales que es necesario tratar de cara al futuro.

2.- Haur eta gazteekin parte-hartze prozesu dinamikoa garatzea, zeinaren xedea ahalduntzea eta herriaren eraikuntzan subjektu aktibo izango diren haur eta gazteak heztea izango den. Egin beharrekoen artean, haurrekin parke bat sortu eta gazteekin gazte espazio bat sortzea izango ditugu.

### 3.23.- Liburutegi berria Niessenen.-

Kultura oinarrizko eskubide sozial gisa ulertzen dugu, tresna bat bezala gizartea hobetzeko. Kulturaren gune nagusiak ditugu liburutegiak, aipatu dugun ahalduntzea eta formakuntza sustatzeko guneak. Horregatik gure herriko erdigunean liburutegi berri bat egingo dugu, XXI. Mendeko beharrei erantzungo diena.

### 3.24.- Beraungo Kultur Etxea.-

Pasa den legegintzaldian hartutako konpromezuari jarraituz eta gure herritarren eskubideak bermatze aldera ez dugu erdialdean gelditu nahi eta Beraunen kultur etxe bat sortuko dugu. Bertan liburutegi zerbitzuaz gain ekintza kultural aberatsa sustatuko dugu.

### 3.25.- Herritarrak Artatzeko Zerbitzu bat abian jartzea.-

Herritarrak artatzeko zerbitzu bat ezarriko dugu, goizeko eta arratsaldeko ordutegiarekin, pertsonen eskariei azkar eta eraginkortasunez erantzuteko. Leihatila bakarreko zerbitzua sortuko dugu, prozedurak sinplifikatuz eta erantzuna emateko denbora hobetuz.

2.-Desarrollar un proceso de participación dinámico con los niños y los jóvenes, siendo su objetivo empoderar y educar a los niños y los jóvenes que serán sujetos activos en la construcción de la ciudad. Entre las tareas a realizar, estarían las de crear un parque con los niños y niñas, y crear un espacio con los y las jóvenes.

### 3.23.- Nueva biblioteca en Niessen.-

Entendemos la cultura como un derecho social fundamental, como una herramienta para mejorar la sociedad. Las bibliotecas son los espacios culturales principales, espacios para promover el empoderamiento citado y la formación. Por esa razón, crearemos una nueva biblioteca en el centro de nuestra villa, que responderá a las necesidades del siglo XXI.

### 3.24.- Casa de Cultura de Beraun.-

Para seguir con el compromiso adquirido en la pasada legislación y para garantizar los derechos de nuestros ciudadanos, no queremos limitarnos al centro y crearemos también una casa de cultura en Beraun. En ese espacio, además de promover el servicio de biblioteca, promoveremos también una amplia acción cultural.

### 3.25.- Puesta en marcha de un Servicio de Atención Ciudadana.-

Implantaremos un servicio de atención a la ciudadanía, con horario de mañana y tarde que dé respuesta a las demandas de las personas con celeridad y efectividad. Crearemos un servicio de ventanilla única, simplificando procedimientos y mejorando el tiempo de respuesta.

### 3.26.- Herritarren Segurtasunean Parte Hartzeko Kontseilua sortzea.-

Herritarren segurtasunean prebentzioaren alde egiten dugu, eta horrek esan nahi du soilik polizia-politikak direnak gaindituko dituzten zeharkako politikak aplikatu behar direla. Horretarako, herritarrek parte hartzeko Kontseilu hori sortuko dugu. Kontseilu horrek, Ertzaintzarekin eta Udaltzaingoarekin batera, Gizarte Zerbitzuen Saila, Berdintasun Saila, Hezkuntza Saila eta abar gehituko ditu, baita eremu horretan lan egiten duten kolektiboak edo elkarteak ere.

### 3.27.- Auzoko Udaltzaingoa sustatzea.-

Auzoko Udaltzaingoa metodoa erabiliz herritarrengandik hurbil gaude, eta metodo horri esker ahalbidetu da zerbitzuaren kalitatea hobetzea eta prebentzio-jarduerak areagotzea. Udaltzaingoak modu proaktiboan eskaintzen du bere zerbitzua, modu erreaktiboan eskaini ordez.

### 3.28.- Gardentasun-ataria sortzea.-

Administrazioaren gardentasuna betebehar bat da, eta informazio publikorako sarbidea izatea herritarren eskubide bat. Horretarako, gardentasun-atari bat sortuko dugu.

### 3.26.- Creación del Consejo de Participación de la Seguridad Ciudadana.-

Apostamos por la prevención en la seguridad ciudadana, y eso significa aplicar políticas transversales que superen las meramente policiales. Para ello, crearemos este Consejo de participación ciudadana, que junto a la Ertzaintza y la Guardia Municipal, incorpore a los Departamentos de Servicios Sociales, Igualdad, Educación, etc., así como a colectivos o asociaciones que trabajen en estos ámbitos.

### 3.27.- Potenciación de la Guadia Municipal de Barrio.-

La Guardia Municipal de Barrio se ha revelado como un metodo que desde la proximidad a la ciudadania ha permitido una mejora de la calidad del servicio y un incremento de las actuaciones preventivas. Una Guardia Municipal que presta su servicio de manera pro-activa en vez de reactiva.

### 3.28.- Creación de un portal de la transparencia.-

La transparencia de la administración es un deber, y el acceso a la información pública un derecho de la ciudadanía. Para ello, crearemos un portal de la transparencia.

# 4.- LEGEGINTZALDIKO PLANAREN BESTE PROIEKTU BATZUK

## 4.1.- Garapen sozioekonomikorako pentsatuta dagoen herria.-

### *a) Merkataritza Suspertzeko Plan Berezia:*

Errenteriak indartu egin behar du zerbitzuen sektorea eta erreferentziako eta kalitateko gune batean kokatu behar du; izan ere, gai horren inguruan egindako azterlanen arabera, sektore hori gure jarduera ekonomikoaren zatirik garrantzitsuena da. Horregatik, sektoreko agenteen partaidetzarekin, Merkataritza Suspertzeko Plan Berezia idatziko dugu Errenteriarako.

### *b) Langabeak Kontratatzeko Planak:*

Laneratzeko laguntza behar duten pertsonak kontratatzeko urtero 500.000 €-ko partida erreserbatzeko konpromisoa hartzen dugu. Plan horiek, 6 hilabeteko kontratazioak eginez, langabezian dauden pertsonei edo lan-merkatuan sartzeko egoera zailean dauden pertsonei laneratzen lagunduko diete.

### *c) Oarsoaldea eskualdearen Plan Estrategikoa:*

Errenteriak garatu du bere Plan Estrategikoa, baina Oarsoaldeak ere egin behar du etorkizunari aurre egiteko aukerak ezarriko dizkion gogoeta estrategiko sakona. Proposatzen dugu Plan Estrategiko hori herritarrek parte hartzeko prozesu baten bitartez garatzea, eskualdeko agente ekonomikoak, politikoak eta sozialak edukita, Oarsoaldeko premiei ahalik eta erantzun hoberena emateko.

# 4.- OTROS PROYECTOS DEL PLAN DE LEGISLATURA

## 4.1.- Una ciudad pensada para el desarrollo socioeconómico.-

### *a) El Plan Especial de Revitalización Comercial:*

Errenteria necesita fortalecer el sector de los servicios y situarlo en un espacio de referencia y de calidad, toda vez que este sector supone la parte más importante de nuestra actividad económica según los estudios realizados. Por ello, con la participación de los agentes del sector, redactaremos el Plan Especial de Revitalización Comercial (PERCO) para Errenteria.

### *b) Planes de Contratación de Desempleados:*

Nos comprometemos a reservar anualmente una partida de 500.000 € para la contratación de personas que requieren de ayuda para su inserción laboral. Hablamos de Planes que mediante contrataciones de 6 meses, buscan favorecer la inserción laboral de personas desempleadas o que se encuentran en una díficil situación para su incorporación al mercado laboral.

### *c) Plan Estratégico de la comarca de Oarsoaldea:*

De la misma manera que Errenteria ya ha desarrollado su Plan Estratégico, Oarsoaldea también necesita de una reflexión estratégica de calado, que le establezca un horizonte y oportunidades para afrontar el futuro. Planteamos que ese Plan Estratégico se desarrolle mediante un proceso de participación ciudadana, contando con los agentes económicos, políticos y sociales de la comarca, a fin de dar la mejor respuesta posible a las necesidades de Oarsoaldea.

### *d) Errenteriako berrikuntzarako, ekintzaileetzarako eta merkataritzako laguntzak:*

Errenteriako berrikuntzara, ekintzaileetzara eta merkataritzara bideratutako laguntza ekonomikoekin jarraituko dugu, enpresa-arloko edo lan-arloko proiektuek eduki dezaketen hasiera zaila errazteko, baita dagoeneko abian jarrita dauden proiektuetan berrikuntza sustatzeko ere.

### *e) Gizarte-klausulak kontratazio publikoetan:*

Kontratazio publikoetan gizarte-klausulak ezartzen jarraituko dugu, Udalak egindako kontratazioetan lan-baldintza duinak errespetatzeko.

### *g) Oarsoaldea Eskualde Garapenerako Agentziaren alde egiten jarraitzea.-*

Udal honek udalerriaren garapen sozioekonomikoaren alde egiten duen apustuaren adibide garbia urteko aurrekontuetan Oarsoaldea Eskualde Garapenerako Agentziari egiten dion ekarpen ekonomikoa da. Zehazki, normalean 415.000 €-ko ekarpena egiten bazuen ere, 2016an 553.000 €-ko ekarpena egingo du; zenbateko hori, ondoren, proiektu berrietara bideratzen da.

### *h) Artiola eta Eskulangintza:*

Errenteria 2025 Plan Estrategikoan bildutako ardatz estrategikoetako baten alde egiten jarraituko dugu. Ardatz hori eskulangintza eta Artiola proiektua da. Gipuzkoako Foru Aldundiarekin batera, eskulangintza berrikuntzan eta bikaintasunean kokatzearen aldeko apustua egiten dugu.

### *d) Ayudas a la innovación, al emprendizaje y al comercio en Errenteria:*

Continuaremos con las ayudas económicas destinadas a la innovación, el emprendizaje y el comercio en Errenteria, a fin de facilitar el díficil comienzo que puedan llegar a tener los diferentes proyectos empresariales o laborales, e incluso fomentar la innovación en aquellos proyectos que ya se encuentran en marcha.

### *e) Cláusulas sociales en las contrataciones públicas:*

Continuaremos estableciendo cláusulas sociales en las contrataciones públicas a fin de que se respeten unas condiciones laborales dignas en las contrataciones realizadas por el Ayuntamiento.

### *g) Mantener la apuesta por la Agencia de Desarrollo Comarcal Oarsoaldea.-*

Una clara muestra de la apuesta que realiza este Ayuntamiento por el desarrollo socioeconómico del municipio es la aportación económica que realiza a la Agencia de Desarrollo Comarcal Oarsoaldea en sus presupuestos anuales. En concreto, hemos pasado de una aportación ordinaria de 415.000 €, a una aportación de 553.000 € en 2016, cantidad que posteriormente es destinada a nuevos proyectos.

### *h) Artiola y la Artesanía:*

Continuaremos apostando por uno de los ejes estratégicos recogidos en el Plan Estratégico Errenteria 2025, que es la artesanía y el proyecto Artiola. Conjuntamente con la Diputación Foral de Gipuzkoa apostamos por situar a la artesanía en la innovación y en la excelencia.

## 4.2.- Pertsonak babesteko pentsatutako herria.-

### *a) Haur eta nerabeen babesa:*

Haurtzaroa eta Nerabetasuna programaren helburua arrisku egoeran edo babesgabetasun egoeran dauden Errenteriako haur eta nerabeei zuzendutako zerbitzua eskaintzea da. 2015ean, kasuek gora egin dutela ikusirik, 2016rako 62.000 € gehiago aurreikusi ditugu zerbitzu honetarako. Programa honen bidez haur, nerabe eta beraien familien integrazioa bilatzen da.

Konkretuki, familiei zuzentzen zaien zerbitzua da, gizarte, hezkuntza eta arlo psikosozialean, terapia eta heziketa lan bat eskainiz bai bakarka baita talde lana eginez ere, eta beti adingabeen arrisku edo babesgabetasun egoeretako ikuskaritza teknikoarekin batera.

### *b) Pausoz pauso programa:*

*Pausoz – pauso* programa abian jartzeko 70.000 €-ko partida sortu dugu. Pertsonei edo familiei zuzendutako zerbitzua da, erlazioetarako laguntza eskaintzen duena.

Familien etxebizitzetan (etxe antolamendua, familia esku-hartze arina...) edo pertsonen ingurunean (bizilagunak, auzoan...) gauzatu daiteke. Epe luze batean ematen den prozesua da. Honen bidez, erabiltzaileek, ezaguerak, jarrera, ohiturak eta edozein egoeretan modu autonomoan gizarteratzeko beharrezkoak dituzten gaitasunak egokitu edota ikasten dituzte.

### *c) Ikastetxeei zuzendutako diru laguntza lerroak:*

Prebentzio arloan, ikastetxeei zuzendutako diru laguntza lerro bat dugu, hauen ustez baliagarriak izan daitezkeen prebentzio programak garatzeko.

## 4.2.- Una ciudad pensada para la protección de las personas.-

### *a) Protección de niños y jóvenes:*

El objetivo del Programa de la Infancia y Adolescencia es ofrecer un servicio dirigido a niños y adolescentes de Errenteria que están en situación de pobreza o situación de desamparo. A la vista de que en 2015 los casos se han incrementado, para 2016 hemos previsto 62.000 € más para este servicio. A través de este programa se busca la integración de los niños, los adolescentes y sus familias.

